

EPISKAR BASERRIKO ABADESAK

José Antonio Mujika

Urteak dira Cañas-ko monastegian lehenbiziko aldiz izan nintzela, baina ez zait hala ere ahaztu aurreneko bisita hark egin zidan inpresioa. Gogoan ditut oraindik han ikusi eta entzun nituenak.

Gogoan ditut, esate baterako, elizako absidearen buelta osoan dauden leiho luze ederrak, bi lerrotan eginak eta alabastroz estaliak, elizari argitasun berezia ematen diotenak; gogoan dut, halaber, Kapitulu Gela zabalaren erdian dagoen Urraca López de Haro dohatsuaren XIII. mendeko sarkofago handia, erliebe ikusgarritz apaindua.

Eta gogoan dut, nola ez, eliza erakusten ari zitzaigunak pozik eta harro esan zuena: XII. mendean sortu zutela moja zistertarren abadia hura, eta gaur arte iraun duela bizirik, urtez urte eta mendez mendez, inolako etenik gabe. Bederatzi mende luze. Bada zerbait!

Ez da esan beharrik, beraz, Errioxako leku baketsu hark interes berezia piztu zuela hara bisitan joanak ginen guztiongan. Eta interes hura, berez txikia ez zena, are handiagoa egin zen, gainera, jakin genuenean monastegiko abadesa errenteriarra zela, Errenteriako baserri batean





Teresa Leonet Zabala

jaioa zela, alegia. Pozik agurtuko genuen, ezagutu eta haren berri gehiago jakiteko, baina, tamalez, okupatua zegoela esan ziguten, eta ezin gintuela orduan hartu, hurrengo batean beharko zuela.

Horretan geratu zen orduan kontua, eta jakinmina ase gabe itzuli ginen etxera. Gerora, hala ere, tarteka izan genituen hango berri batzuk. Hala, jakin genuen bi ahizpa izan zirela abadesa; zaharrena 2000. urtean hil zela, eta bigarrena 2005ean...

Aspaldiko jakinmin hura erdi lo zegoen; ez guztiz itzalia, ordea. Baserritik atera eta hain tradizio luzeko monastegi hartan abadesa izatera iritsi ziren bi moja errenteriar haien berri jakiteko gogo barruan nuen betiere, artean haien izenak ere ez nekizkien arren. Hala, bada, aurtengo maiatzeko egun batean, beste bi lagun eta hirurok autoa hartu eta Cañasera joatea erabaki genuen, han norbaitek –kapilauak edo beste mojaren batek– gure bi mojen berri emango zigulakoan.

Suerteko izan ginen. Iritsi, eta monastegiko sarreran bertan bi moja errenteriarren iloba aurkitu genuen, Francisco Leonet izeneko, komentuko baratzaren eta gainerako mantenimendu lanen ardura duena. Bazirudien norbaitek jarria zuela han, gure zain! Ez genuen, bada, beste inoren beharrik izan; hark eman zizkigun behar genituen berri guztiak. Bai pozik eman ere! Ez dauzka, ez, saltzeko ilobak bi izeba haiek!

Monastegiko bazter gehienak erakutsi ondoren, eliza ondoan dagoen kanposantu txikira eraman gintuen Franciscok, izeben hilobiak ikustera. Han ikusi genituen haien izen-abizenak hilarrietan idatziak: *Teresa zen bat, eta Asunción* bestea; abizenak, berriz, *Leonet Zabala*.

Teresa eta Asunción Leonet Zabala

Episkar baserrian jaio ziren Teresa eta Asunción mojak. Episkar hori Aldura aldean dago; Txikierdi inguruan hasten den bide batetik gora joaten da hara, Barinketatik aurrera jarraituta. Susperregi jatetxearen paretsuan geratzen da, haren atzeko mendialdean. Familia handia hazi zuten han gure bi mojen gurasoek. Gerora, ordea, Oiartzungo Karrikara jaitsi ziren bizitzera eta erori antzean egon omen da urte batzuetan baserria. Gaur egun erabat berritua dago.

Aita, Jose Antonio Leonet, bi aldiz ezkondu zen. Lehenbiziko emaztearekin –Eulogia Portugal zuen izena– semea eta alaba izan zituen; alaba hori ere moja joan omen zen. Bigarren emazteak Teresa Zabala zuen izena, eta harekin hamahiru seme-alaba izan zituen; horien artean Cañasako abadesa izango ziren biak eta baita beste moja bat ere, Josefa, gaur egun laurogei eta gehiago urte dituen eta Errenteriako Agustinen komentuan dagoena. Moja sail ederra, ikusten denez!

Hurtzarroan, baserrietan ohikoa zen bizimodu izan zuten gure bi mojek ere. Etxean lagundu eta eskolan zerbait ikasi, horixe zuten egiteko nagusia. Barinketatik behera zegoen eskola, baserritik bi kilometrora-edo, Aizate izeneko etxean. Han ikasi zuten zerbait Leonet-tarrek. Erdara ikasten ere han hasiko ziren.

Teresa 1932an jaioa zen eta hamazazpi urterekin joan zen Cañasera –M^a del Carmen zuen mojaurreko izena–. Asunción, berriz, hamabost



Francisco Leonet

Asunción Leonet Zabala

urterekin joan zen. Teresa baino hamar urte gazteagoa zen. Teresak ez omen zuen nahi ahizpa horren gazterik joatea komentura, baina honek eutsi egin zion bere erabakiari eta hala joan zen, hamabost urte zituela, herrian Mendizabaltarren etxean zerbitzen aritu eta gero.

Nola bururatu zitzaien ordea Cañasera, Errioxara, joatea? Ez al zuten gertuago komenturik? Garai haietan ohikoa zenez, apaiz batek bideratu zituen hara. Moja zistertarrak dira Cañaskoak, bizitza guztia monastegian ematen dutenak, otoitz eta lan, handik mugitu gabe. Eta horixe nahi zuten, nonbait, Episkarko bi gazteek. Lehendik ere izanak ziren errenteriarak abadia ospetsu hartan, bat baino gehiago. Besteak beste, Teresa baino sei urte lehenago sartu eta 1964-67 urteetan abadesa izango zen Sagrario Yarzabal Igarategui izeneko bat.

Doterik gabe joan ziren bi errenteriarak. Garai batean bereizketa egiten zuten monastegiko bizitzan dotearekin sartzan zirenen eta doterik gabe joaten ziren 'langileen' artean. Dotedunek gela bereziak izaten omen zituzten. Doterik gabe-koak, berriz, dotedunen zerbitzuan aritzen ziren askotan. Teresa eta Asunción joan ziren garaian ez zen horrenbesteko alderik, baina lan egitea tokatu zitzaizen haiei ere. *Ora et labora* goiburuko *labora* delakoa ez zuten batere arrotz izan Leonet mojek,

ez sartu berritan ez abadesa izatera iritsi zirenean ere.

Teresak hogeita bost urte egin zituen abadesa (1975-2000), eta lan asko egin zuen monastegia eguneratzen. Horren denbora luzean karguan egonda, jende askoren maitasuna eta esker ona bereganatu zituen. Asuncionez, berriz, ez zuen denbora luzea egin karguan (2000-2005), aski gazterik hil baitzen minbi-ziak jota; ahizparen lanei jarraipena ematea tokatu zitzaion, batez ere.

Teresaren ospea

Esan bezala, abadesa egon zen denbora luzean ospe handia irabazi zuen Teresak. Askok maite eta estimatzen omen zuten ezagutzen zuten guztiek. Izan ere, jendea erakartzen dakiten horietakoa omen zen. Bere iloba Franciscoren hitzetan, emakume argia zen Teresa, alaia, ilusioz

betea, gauzak egiteko eta antolatze-ko asko balio zuena. Moja lagunentzat ere halakoxea izango zen, lau aldiz segidan aukeratu baitzuten abadesa; 1975ean aukeratu zuten lehenbiziko aldiz, berrogeita hiru urte zituelarik, eta 2000. urtean hil zen arte egon zen karguan.

Emakume argia zenez, berehala ohartu zen monastegiak berrikuntzak behar zituela aurrera jarraitu eta bisitariei behar bezala erantzungo bazien. Bestelako egiteko batzuk utzi –txerriak eta kendu zituen, esate baterako–, eta monastegiak eskatzen zuen bezalako museoa eginaraztea erabaki zuen, ordura arte zutenari indar berria emanaz. Diru asko behar zen horretarako, jakina, baina horrek ez zuen atzeratu errenteriarra. Harreman asko eta onak zituen Errioxan, eta baita handik kanpo ere, eta behar zituen laguntzak lortu zituen bai partikularren bai instituzioen aldetik. *Al que no tiene no se le puede pedir; al que tiene hay que saber pedir* esaten omen zuen. Eta berak bai jakin nori eta nola eskatu! Ez beretzat, noski, monastegiak eskaini behar zuen zerbitzua hobetzeko baizik.

Monastegian zeuden margo eta irudi gehienak zaharberrituarazi zituen, jatorrizko kolore biziak berreskuratuz, eta museorako egokituriko sala zabal batean bildu –ordura arte etxe-ko biltegia, 'Cilla', izana zen sala hura–.

Hainbat mendetan egindako artelan guztiguztiak ez dira, noski, gure egunetaraino iritsi; beharrak estutzen zituen garaietan eskura zitezten margo, urre eta zilar batzuk saldu egingo zituzten mojek, seguruenera, eta lapurretak ere izango ziren, beharbada. Baina gordetako pieza gehienak teknika berrienez hornituriko museo horretan daude gaur egun, bisitarien ikusgai eta gozagarri. Han daude, esate baterako, San Bernardo Ama Birijinari bularretik darion esnea edaten agertzen deneko margoak –'La Lactancia de San Bernardo'–, San Benitorenak eta beste asko. Baita tailu eder askoak eta bestelako artelanak ere.

Ikustea merezi duen museoa da, dudarik gabe, monastegiko elizarekin eta Kapitulu Gelarekin batera. Orain, gainera, sala gehiago prestatzen ari dira.

2001ean argitaratutako *Abadía Cisterciense de Cañas* gidaliburuan, hasiera-hasierako abadesa handien ondoan ipintzen dute Teresaren izena ere. Ez du lekukotasun txarra ematen liburuak:

Sin lugar a dudas todo esto ha sido posible gracias a la disposición de una gran mujer; que ha sido en toda la historia de la Abadía una de las más insignes Abadesas que ha tenido Cañas.

Doña TERESA LEONET ZABALA ha dejado una huella imborrable en su paso por este monasterio durante los veinticinco años que ha ejercido y desempeñado el cargo.

Eta olerki luzea eskaintzen diote ondoren. Honela du hasiera olerkiak: *¿Quién te arrancó en domingo de tu abadía / de Cañas, / lirio blanco del norte, / florecido en la Rioja?*

Amaitzeko

Gure bisita bukatzeko oratoriotik pasatu ginen; hantxe zeuden gaur egun komentuan diren bederatzi moja xaharrak, beren errezuak egiten. Hogeita gehiagorentzako 'aulki' bazen oratorio hartako koruan, eta beteak egoten omen ziren denak garai batean. Gaur egun, ordea, esan bezala, bederatzi moja besterik ez omen dago, gazteenak berrogei urte dituelarik.

Nolako etorkizuna izango du, bada, horren historia luzea duen abadiak? Batek daki! Dena dela, gu pozik itzuli ginen etxera, horrelako gogoetetan sartu gabe, lortua baikenuen nahi genuena.

Uste dut guri bezala errenteriar askori interesgarri izango zaiela Episkarko bi herritar argi haien berri jakitea.

Oharra: eskerrak ematen dizkiet artikulu hau idazteko informazioa eman didan Francisco Leoneti, eta Cañasera lagundu zidaten Segundo Cruz eta Samuel Garcia lagunei.



Francisco Leonet

Leonet Zabala sendia

